



Oria ibaiari begira beste behin.- Asteazkenean Oria ibaia maila laranja iritsi zen eta uholde arriskua zela eta, Lasarte-Oriako Udalak hainbat neurri hartu zituen. Michelineko kirolgune atzeko bidea eta Azkorte bidea esaterako, itxi egin zituen eta Isla eta Andatza plazetan aparkatzeko baimena eman zuen herritarrek ibai inguruko garajeetan eta Erriberan aparkatuta zeuzkaten autoak arriskutik kentzeko. Horrekin batera, ibilgailuak edo bestelako jabetzak arriskuan ikusten zituzten bizilagunei adi egoteko eskatu zitzaaien ibaiaren igoeraren aurrean. Atzo Udalak arrisku egoera mantendu zuen arren, gurean ez zen inzidentzia aipagarririk gertatu. Eguerditik aurrera ateruneak luzatzen joan ziren, denboralea baretuz. Aurten dagoeneko bigarren aldia da euriteek uholde arriskua eragin eta gurean Udalak prebentzio neurriak martxan jarri behar izan dituela.

3 LITERATURA

Irakurle txokoaren bertso-afari literarioa Xirimirin

Martxoaren 14an bertso-afari literarioa antolatu du Irakurle Txokoak. Honetan Igor Elortza, Uxue Alberdi eta Ane Labaka arituko dira eta gaitzaitzaile lanak Harkaitz Canok egingo ditu. Txartelak 20 eurotan Jalgi, Ilargi, Gure Etxea eta Trumoi tabernetan eskuratu daitezke.



6 KIROLA

Beñat Telleria azpitxapeldun Aiako torneoan

Inhar Urruzuno Ondarroako txapelduna izan zuen soilik aurretik Beñat Telleria harri-jasotzaile lasarteoriatar gazteak Gipuzkoako probaleku ezagunean. Herritarrek 93 jasoalditan 9.000 kilo bizkarrratu zituen. Orain atseden hartuko du udan berriz ere lehian hasteko.



SOFIA BORROKAN ARI DA "B" DOKTOREAREN AURKA

"B" kontabilitatea, BEZik gabeko salmentak, kanpainak eta "black" txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Sofia ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.

Kamera ezkutaren bidea

◀ Sofia Pérez (Donostia-ko taxilaria)

Gipuzko BERRIA

"A" gizartea lortzeko
ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara
www.ekonomiagardena.eus
#ekonomiagardena

Neure kabuz



Jexux Artetxe
Autojustifikaziorik gabe

Indarkeria nagusi izan den aroan jazotakoak etikoki gaitzestearen aurka direnak ere, beren kontaktuzun partikularra guztiona egitea nahi dute. Horrela, errelatoaren borroka ekidin ezinezkoa bihurtu zaigu. Ezbaia irteera bat ematearren agian, “onargarriak liratekeen gezurrak hitzartzeko” prest agertu beharko genukeela aholkatu zigun Lokarrik Hego Afrikatik ekarritako aditu batek. Ez dakit, ordea, hori baino gauza okerragorik egin genezakeen. Geroa behar bezala eraikitzeko, erantzukizunaren etika bat behar dugu. Baina, gezurretan oinarritutako itunetatik ezin da erantzunbide jatorrik atera.

Urkullu lehendakariak esan berri duen gisara, “ez dago justifikaziorik” egin ziren krimenak egiteko. Iraganaren kontakizuna ezin dugu beraz krimen haiek justifikatzeko moduan egin. Ez baitago inongo kausarik giza duintasunaren gainetik, gizakiaren bizia eta eskubideak mende hartzeko inolako zilegitasunik duena. Horixe da belaunaldi berriei erakutsi behar diegun ikasbidea. Etorkizuna horrela antolatzea guztioi dagokigun eginkizuna da, denon axolakoa dena. Baina, indarkeria erabili edo babestu dutenek egia aitormena zor diote izuaren biktima zuzenei, eta era berean kalteua izan den euskal gizarteari.

Autojustifikazioarik gabeko egia adierazteko gauza dela frogatu du Kepa Pikabeak, Maite Goizueta lasarteoriatarren senarra denak. “Bakerantza” filmean ikus eta entzun daitekeen lekukotasuna oso gomendagarria da. ETako militantea izan zen honek aurre egiten dio dagokion erantzukizunari, “nire bizitzako errurik handiena, herriaren askapena giza duintasun ororen gainean jartzea zela” aipatzean. Horrelako testigantzak ezingo dute iraganeko kaltea zuzendu, baina onuragarriak dira etorkizun bizigarriagoa eraikitzeko. Azalpen gordinez beterikoa, “Bakerantza-Al Final del Tunel” dokumentala laster izango dugu herrian ikusteko aukera.

Zorion agurrak




Sara eta Lorena
Zorionak gure printzesei!! Zazpi muxu handi familia eta lagun partetik!!!



Ane
Salto eta bueltaa trikitrixa jo eta dantzatu eta horrela segi ehun urte arte!!! ZORIONAK!



Ibai
Zorionak, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu haundi bat etxeko partez!!!!




Juan Luis eta Jone
Zorionak!!! "pareja de bi" Familiaren partetik.



Nora
Zorionak printzesa zure 8. urtebetzean. Muxu pila pila bat guraso eta familiaren partetik.



Asier
ZORIONAK!! Oso ondo pasa zure eguna, gurasoen eta Maiderren partetik 23 muxu handi!



Iraia
Zorionakkkk printzesa zure 7. urtebetetzean, ondo pasa, zure familiaren partetik. Muxu!



Udane
Zorionak Pirata! Sei muxu goxo familia guztiaren partetik!

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Garaje marra bat alokatzen da Loidibarren 10 m2ko trasteroarekin. 100 euro. 677 86 36 42
- Bulego batean lan egin nahi nuke Lasarten, espazioa konpartituta. Informazio gehiago: 661 45 29 09
- Garaje bat saltzen dut Antxueneako plazan, kiroldegi ondoan. 610 73 32 64.

Lan-eskaria

- Interna bezala lana bilatzen dut adinekoen zaintzan. Esperientzia eta paperak egunean ditut. 645 78 72 72
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 76 60 68.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo

orduka arratsalde etxeko lanak, garbiketa, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 80 31 99.

- Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketa lanetan edo zaintzan lan egiteko. Paperak eta esperientziarekin. 666 70 89 63
- Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko emakumea prest. Tabernan lan egingo nuke ere. 676 18 84 11/ 645 53 04 90

- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da, umeak zaindu, adineko pertsonak. Esperientzia eta erreferentziekin. 648 63 00 16 Kontxi.

Bestelakoak

- Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzetarako. Merke. 943 37 00 92

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Ailem Mohamed Mahmouded otsailaren 19an.
- Oihan Zamarreño Lucero otsailaren 17an.
- Alex Goenaga Tizon, otsailaren 15ean.
- Emran Hamri El Ghazaoui, otsailaren 9an.



Heriotzak

- Irene Ansorena Orueta, otsailaren 24an, 86 urte zituela.
- Emilio Varela Paz, otsailaren 23an, 82 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 27
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549

Larunbata, 28
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

Igandea, 01
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

Astelehena, 02
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567

Asteartea, 03
Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521

Asteazkena, 04
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

Osteguna, 05
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak


Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Seguroa, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

Lasarte-Oriako Herritar Plataforma

Herritar Plataforma, etapa baten amaiera

LOHPak amaitutzat eman du bidea eta ez da Udal hauteskundeetara aurkeztuko

Lasarte-Oriako Herritar Plataforma ez da maiatzean izango diren Udal hauteskundeetara aurkeztuko. Orain arte egin-dako lanaren errepasoa egin nahi izan du taldeak baita Udalean urte hauetan egindako lanaz eta lortutakoaz ere. Plataforma osatzen duten pertsonak orduan eta orain talde heterogenea dela defendatzen dute. Ibilbide eta ezaugarri ezberdinekin eta alderdi politikoan diziplinetatik kanpo. Alderdi bezala Herritarren Plataforma ez da desagertuko. Lanean jarraitzeko asmoa dute eta ez dute guztiz baztertzen aurrerago berriz aurkeztearen aukera.

Leerro hauek erabili nahi izan ditzuzte Lasarte-Oriako Herritar Plataformako kideek, euren proiektuan sinistu duten herritarrei eskerrak emateko eta datozen hauteskundeetara ez aurkeztearen arrazoiak azaltzeko.

Sorreran gogoratzen dute nola batzuek esaten zuten 80 boto soilik aterako zituztela, baina 2007ko hauteskundeetan 800 boto baino gehiago izan zituzten, eta 2011ko udal hauteskundeetan, bi zinegotzi lortu zituzten.

Urte hauetan egindako lanarekin pozik azaltzen dira eta nahiz eta datozen hauteskundeetara ez aurkeztu, Plataforma ez da desegin-go eta beharra ikusten bada, aurrerago, hauteskundeetara berriz aurkeztea pentsatuko luketela diote.

Historia pixka bat. Herritarrek egunean jar daitezen gogoratu ditzagun zenbait gauza herriko politikagintzan hainbat aldaketa eman diren garai hauetan: Zergatik Herritar Plataforma bat Lasarte-Orian 2007an? Une horretan zeuden ideia politikoaren artean, non kokatu zen PCLO? Plataforma herritar talde batek osatu zuen, hainbat herritar nazkatuta geunden alderdi politikoak herritarren beharrei erantzuteaz baino beraien interesei eta soldatei begira ari zirelako, eta nazkatuta gure herriak pertsona baten kortijoja zela ematen zuelako eta bere alderdiak hori egiten uzten ziolako.

"Orduan eta orain talde heterogenea gara, ibilbide eta ezaugarri ezberdinetako jendeak osatua eta alderdi politikoaren diziplinetatik kanpo."

Hasieran batean Ezker Batukoak ginela esaten hasi ziren. Gero PPkoak. Geroa-go, EAJkoak ginela, eta are gehiago, dirua ere ematen zigutela (jakingo balute 2007ko hauteskundeetan 1.000 euro gastatu genituela eta horiek gure poltsikotik jarri genituela). Eta orain EHBildukoak garela diote. Esaten zuten, esaten dute... eta betiko moduan, oker daude.

Orduan eta orain talde heterogeneoa gara, ibilbide eta ezaugarri ezberdinetako jendeak osatua eta alderdi politikoaren diziplinetatik kanpo; hau da, Udalaren kudeaketan herriko benetako beharrak ezagutu gabe esku hartu nahi izaten duten eta alderdien emaitza orokorreari begira lan egiten duten agintariaren eraginik gabe.

PCLO, talde politiko moduan, bi oinarri nagusi ditu: herri izaera eta Giza Eskubide Unibertsalei errespetua, eta horien artean bereiziki, edozein motatako biolentziaren aurka egotea eta demokratikoki defendatzen diren ideologia ezberdinak errespetatzea.

Urte horietan Lasarte-Oriako Udalean zazpi alderdi politiko elkar bizi ziren. Botoei dagokionez erdi parean zeundeten. Nolako harrera izan zenuen? Udalaren kudeaketan izan zenuen eraginik? Zein irizpide erabiltzen zenituzten alderdi baten edo bestearen proposamenak babesteraoan? Esaten zuten 80 boto soilik aterako genituela. Esaten zuten... eta oker zeuden.



Herritar Plataforma osatzen duten kideek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei eurengan sinisteagatik.

2007ko hauteskundeetan 800 boto baino gehiago atera genituen, eta 2011ko udal hauteskundeetan bi zinegotzi lortu genituen.

Sortu zenetik Lasarte-Oria Herritar Plataformak helburu nagusi bat izan du: herritarren ahotsa Udalera eramatea. Etengabe defendatu du herritarrek modu askean iritzia emateko, kexa azaltzeko eta ekarpenak egiteko duten eskubidea.

Lehen azaldu dugun moduan, independentzia ideologikoa da, alderdien diziplinarekin independentziarekin batera, gure oinarrietako bat. Horrek esan nahi du erabakiak hartzerakoan irizpidea argia dela: herritarren onurarako izan dadila, eta horri begira koherentziaraz, arduratsu eta zintzotasunez jokatu. Inoiz ez dugu herriarentzat ona dela iruditzen zaigun proiektu baten kontra bozka emango, baina inoiz ez dugu kontrarik babestuko.

Azaldu diguzue politikan agertu izana Udalak herritarrei "ez entzunarena" egitearen "eta beste alde batera begiratzearen" ondorio izan zela; baina zein zen zuen helburu zehatza hauteskundeetan? Ez zenuen zerrenda bozkatuena babestu, ezta 2011ko hauteskundeetan ere. Zergatik? Gure helburua ez zen alkatea aldatzea, sinesten genuen horri begira lan egitea baizik: politika egin zitekeela soilik herritarren onuran pentsatuz, eta hori lortu dugu.

"2011an aldaketaren aldeko apustua egin genuen, baina gure independentzia mantendu nahi izan genuen gobernu akordiorik egin gabe."

Beti egon gara hitz egitearen eta akordioak egitearen alde. Ez zaizkigu gehiengo osoak gustatzen, besteak kontuan hartu gabe eta guztiaren jabe direla pentsatuz agindu dezaketelako. Aniztasuna aberastasuna dela sinesten dugu, eta talde lanean ere sineste dugu, bide horretatik sentisibilitate ezberdinek ekarpenak egin baititzakete Udalak hartu behar dituen erabakiei begira. Eta ez lehenengo moduan, non gehienez ere proiektuei ekarpen txiki batzuk egiteko ahalagina egitea baitzen egin zitekeen bakarra.

Horregatik, 2011an aldaketaren aldeko apustua egin genuen, baina gure independentzia mantendu nahi izan genuen gobernu akordiorik egin gabe. Horrela eman dugu legealdi osoa, hitz eginaz eta adostasunak bilatuz. Noski, honek lan handia eskatzen du eta ez da beti zuk nahi duzun hori lortzen, baina negoziatzea amore ematen jakitea ere bada, eta hori ona da demokraziarentzat.

Zuen publizitate kanpainetan askotan entzun ditugu modu honetan esaldiak: "Udalean lanean

"Gure proposamena argia da: Gehienez ere 8 urte kargu publiko batean eta gero lana bilatzea, beste edozein bezala."

berean herritar gehienon sentsazioa da benetan ematen diren kasuetatik gutxi batzuk soilik agertzen direla. Noski, politikan jende ona eta zintzoa ere badago, baina hainbat oso eroso daude beraien eserlekuetan soldata bikainak kobratuz, eta horietako bakan batzuk, baina soilik bakan batzuk, krisia dela eta zertxobait dituzte. Horregatik argi daukagu: nola da posible 20 edo 25 urte, edo bizitza osoa, politikatik bizitzea? Gure proposamena argia da: Gehienez ere 8 urte kargu publiko batean eta gero lana bilatzea, beste edozein bezala.

Bi legealdi daramatzazue Udalean: bat oposizio moduan eta bestea kudeaketa ardurekin. Baldintza batzuk jarri zenituzten inbestidura akordiorako. Zuen helburuak bete dira?

Gure helburuak, noski, ez dira osotasunean bete. Beste batzuekin batera lan egiteak esan nahi du batzuetan norbere nahiak albo batera ere utzi behar direla denon artean erabakiak hartu ahal izateko.

Baina, adibidez, lortu egin da urtero Udalak kudeaketa ekonomikorako aurrekontua aurkeztea eta onartzea.

Eskatu duten herritarren, elkarteen eta taldeen eskura Udalaren baliabide batzuk jarri dira. Adibidez, ekitaldiak antolatzerara begira, eszenatokiak, karpak, argia eta ura, Kultur Etxeko aretoak, zerbi-tzuetako brigaden laguntza, eta abar.

Aurreko legealdietan oztopoak jartzen ziren, edo ba-tzuei uzten zitzaizkien eta beste batzuei ez. Oraingoan lortu da, eta zenbait kasutan doan ere bai. Zoru publikoaren erabilera eskubide bat da gaur egun, eta ez "norbaiten laguna" izateagatik lortzen den zer-bait.

Herritarrek hitza har dezakete udalbatzarretan, eta kexak azaldu, arazoak aurkeztu, proposamenak egin...

Horrela eskatzen duten herritarrei atentzio pertsonalizatua eskaintzen zaie, eta dagokion arloko zinegotzi arduradunarekin hitz egiten dute.

Kudeaketa koherentea egin dugu, eta ez pertsonalista. Enpresekin lan egite-

"Kudeaketa koherentea egin dugu Udalean, eta ez pertsonalista. Enpresekin lan egiterakoan asko zaindu da Udaleko teknikoekin ondo koordinatzea eta lan bilerak ondo prestatzea."



Herritar Plataformako kideak Udalean egindako lanarekin pozik daude.



Ana Isabel Prieto eta Juanjo Castro izan dira LOHPren bi zinegotziak azken legealdi honetan.

rakoan, asko zaindu da Udaleko teknikoekin ondo koordinatzea eta lan bilerak ondo prestatzea.

Aurreko legealdietan oso ohikoak ziren alkatearen bulegoan eta atea itxita egiten ziren bilerak.

Herriko autobusa martxan jarri da. Eta dokumentazio guztia behar bezala jarrita. Hau lehen ez zen beti horrela izaten. Eta herriko autobusa Mugi txartelaren barruan txertatzeko hizketan ari gara.

Urtero haur parke bat konpondu eta ordezkatu egin da eta urtero diru kopuru garrantzitsu bat horretarako gorde da.

Barne lan handia egin dugu: hitz egiten, konbentzitzen, ateak itxi gabe baina zorrotz. Beti herriarentzat hoberena bilatu nahian, eta titularretan edo errenta politikoetan pentsatu gabe. Hori bai, oso zaila da akordioetara iristea parte diren kideen artean ere hitz egiten ez duen alderdi batekin.

Nabarmena da gauza asko egiteke daudela gure herrian, baina alkate ohiak irrati batean 2007ko hauteskundeon ondoren esandako

"Hilabeteak daramatzagu hausnarketa egiten eta azkenean, maiatzeko Udal hauteskundeetara ez aurkeztea erabaki dugu Lasarte-Oriako Herritar Plataformako kideok."

hitz batzuk ekarri nahi ditugu gogora: "8 zinegotzi lortu zituenez eta gehiengoa 9 zirenez, ezingo zuela bere programa bete". Ba pentsa guk bi zinegotzirekin zer esan beharko genukeen!

Alkate ohiaren hitz tamalgarri hauen ordeaz, argi daukagu:

1. Lortu ez ditugun gauzengatik gure ardurak gure gain hartzen ditugu.

2. Uste dugu Udalak antolaketa eta barne funtzionamendu arazo handi bat duela, funtzionario eta langileen zereginetatik harantzago doana, eta haei beraien lana eta dedikazioa eskertzen diegu.

3. Iruditzen zaigu alderdi handiek beraien interesei lehenetasun handiagoa ematen dietela herritarren beharrei erantzutea baino.

Azken puntu hau ez dute alderdiek onartuko, ehunka eta milaka gauza aginduko dizkigute eta beraien zeregina herritarrei zerbitzua ematea izango dela esango digute. Baina hauteskundeetan atzean soldata mantentzea edo galdutako soldatak berreskuratzea ere badago, eta hori ere ez dute onartuko.

Maizatzean berriz ere Udal hauteskundeak izango dira. Zer asmo ditu Herritar Plataformak hauteskunde horietarako eta aurrera begira?

Inor ez dela ezinbestekoa uste dugu, eta, noski, gu ere

ez. Ez dago konponbide guztiak dituen alderdi bakar bat, ezta egi guztia duenik ere. Horregatik, hauteskundeak hurbiltzen direnean, Plataforma aurkeztea beharrezkoa eta komenigarria ote zen hausnartzeari ekin genion.

Esan behar da, hilabeteak daramatzagu hausnarketa horrekin eta azkenean, 2015eko maiatzeko Udal hauteskundeetara ez aurkeztea erabaki dugu.

Iruditzen zaigu 2007. urtean Herritar Plataforma Udal hauteskundeetan aurkeztea erabakitzea eraman zituen helburuak ondo bete direla.

Lerro hauen bitartez, bihotz bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu Plataformaren proiektuan sinetsi duzen eta proiektuarekin bat egin duzen herritar guztioi. Zuek gabe, Plataforma asmo huts bat izango zen.

Era berean, esan nahi dizuegu hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko ez garen arren, Plataforma ez dela desegin-go. Alderdi politiko moduan jarraituko dugu, eta Udalean ordezkariak izan gabe ere herriaren alde lan egingo dugu kaletik, herritar moduan. Eta aurrerago, beharrezkoa ikusten badugu, Lasarte-Oriako Herritar Plataforma berriz aurkeztuko da hauteskundeetara.

GERO ARTE ETA MILA ESKER.

LABURRAK..

Unai Urruzola, Xabier Prieto, Xabi Rekondo eta David Vega Euskadiko sub21 selekziora

Beltzak taldeko lau jokalar deitu ditu Euskadiko Rugby Federazioak 21 urtez azpiko selekzioarekin saio batzuk osatzeko. Bilbora joan ziren Urruzola, Prieto, Rekondo eta Vega eta aurrera begira proba gehiago egingo dizkiete taldean jarraitu edo ez erabakitzeko. Ostiralean Durangoren aurka jokatu dute eta larunbatean Valentzia izango dute aurkari.

Gainontzean, 16 urtez azpiko ZRT Beltzak taldeak 0-83 irabazi zion Eibar/Arrasateri etxetik kanpo. Seniorretan, Babyautok Oviedo garaitu zuen 5-24ko emaitzaz, denboraldiko 18. garaipena lortu eta sailkapeneko lehen postuan indartzeko.

Ostadarreko jubenilek itxura ona eman zuten Beti Gazte liderraren aurkako neurketan

Ohorezko jubenilek neurketa ona jokatu zuten Lesakako Beti Gazte liderraren aurka. Punturik batu ez arren, eta 2-3ko emaitzak aho-zapore garratza utzi bazien ere, lan duina egin zuten Jose Manuel Loyarte 'Gorri' entrenatzailearen mutilek.

Tentsio handiko neurketa jokatu zuten larunbat arratsaldean Michelinean. Bi taldeek izan zituzten atea zulatzeak aukerak, baina azkenean nafarrek hartu zuten aurrea 0-2 atsedenaldira joan aurretik. Min egin zion horrek Ostadarri, baina aldageletarako bidea hartu aurretik Julen Lopezen golak errenta txikitzea lortu zuen. Tamalez, hirugarrena egin zuten lesakarrak lehen zatiaren hondarrean.

Bigarren zatian, borrokarako sena erakutsi zuten lasarteoritarrek, eta Jon Kortaren gol eder batek markagailuko aldea txikitzea lortu zuen. Emaitza hobea merezi bazuten ere, azkenean 2-3 amaitu zen partidua. Dena den, denboraldi zoragarria osatzen ari dira Ohorezko jubenilak, sailkapeneko hirugarren postuari eusten diote 37 punturekin, Beti Gazte (53p) eta Añorgaren (51p) atzetik.

Gainontzeko emaitzetan aipagarria Ohorezko Erregionalek Aretxabaleta bigarren sailkatuaren aurka lortutako husnako berdinketa eta Emakumezko Erregionalen porrota Touringen aurka, 5-4, Iker Artetxe entrenatzailearen estreinako partiduan.



HERRI-KIROLAK..

Beñat Telleria azpitxapeldun Aiako harrijasotze Torneoan

Inhar Urruzuno Ondarroako txapelduna soilik izan du aurretik

Bigarren postuak min eta amorru puntu batekin hartu ohi dira. Zure aurretik egin duena Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelduna denean ordea, azpitxapeldun izateari garrantzia berezia eman behar zaio. Lan ona osatu zuen Telleria IV.ak Aian, pixkarena gora datorren 19 urteko gazteak.

JON ALTUNA EGITEGI

Azpitxapeldun, bigarren. Aian Telleriak lor ezakeen "posturik onena", bere esanetan. Kirolarietxiki gutxien gustatzen zaien tokian, bigarrenen, amaitu zuen herriko harri-jasotzaileak Aiako Torneoan. Inhar Urruzuno Ondarroako txapelduna izan zuen soilik aurretik lasarteoritar gazteak Gipuzkoako probaleku ezagunean.

Lan gogorra eta luzea

75 kiloko zilindro zaharra, 100 kiloko zilindro zaharra eta 125 kiloko kopa erabili zituzten joan den igandean. Harri bakoitzarekin hiru minutuko txandak osatu zituzten parte-hartu zuten lau harri-jasotzaileek.

Urruzuno bizkaitarra izan zen onena, denera 10.000 kilo berdintzea lortu zuen 102 jasoalditan. Bigarren postuan Beñat Telleria sailkatu zen. Herritarrak 93 jasoalditan 9.000 kilo bizkarreratu zituen.



Beñat Telleria ahalegin betean, artxiboko irudi batean.

Atzetik sailkatu ziren Josetxo Urrutia leitzarra 8.775 kilo eta 91 jasoaldirekin eta Iñigo Eizagirre zarauztarra 8.050 kilo eta 85 jasoaldirekin.

Gustura zen Telleria lanak amaituta, baina ez erabat: "Eguerdian botaka ibili nintzen, ez zidan utzi behar bezain ondo lehiatzen. Ez dakit urduritasunagatik edo zer, baina astelehena eta astearte ere txarrak pasa ditut".

Jasoaldi askoko lana izan zuten, erresistentzia handia eskatzen zuena: "Bigarren harriak zeharo jota nengoen, halere anaia eta aita alboan izateak lagundu egin zidan. Hirugarren harriarekin lasaia go atera nintzen, jasoaldi askoko bentaja ateratzen nio-lako Josetxo Urrutiari eta hobeto aritu nintzen, presiorik gabe", zioen Telleriak.

Gazte izanagatik, ikusiko da nora ailegatzeko gai den 19 urteko herritarra. Gaur-gaurkoz, pozik da izaten ari den bilakaerarekin: "Urtetik urtera mejora nabari dut, kilo-

tan gehiago naiz eta hor aldea dago, indarrean. Pixkarena joan nahi dut, ikusi behar noraino iristen garen".

Asteazken eta larunbatean harriekin entrenatzen du Telleria anaietan gazteenak eta hark dioen bezala "petxua" egiteko mendian gora eta behera ibiltzen da.

Aurrera begirako erronkak

Orain atsedean hartuko du udara arte, 'Kintopetako Txapelketa' gorputz eta arima prestatu nahi du, 21 urtez azpiko Euskal Herriko txapelketa garrantzitsuen hain zuzen. "Hau bukatuta beste txapelketaren bat antolatzen badute aurkeztuko naiz, baina printzipioz erronka politena Kintopekoa da guretzat".

Ispilu ona du fabrikazio mekanikoko estudianteak: Aimar Irigoien. Errezildarra Telleriatarrenaren joan ohi da astero entrenatzera: "Askodaki, aholkuak ematen dizkit", dio Telleriak, txapelduna irakasle duen ikasle gazteak.

KIROL AGENDA..

FUTBOLA

- Larunbata 28
Michelin, 11:15ean
Ostadar SKT - Athletic Club
Kadeteen Euskal Liga,
23. jardunaldia.
- Michelin, 14:30ean
Ostadar SKT - Danena
Kadeteen I. Maila, Kopa
7. jardunaldia.
- Don Bosco, Erretereria 13:30ean
Pasaia - Ostadar SKT
Jubenil I. maila, Kopa
5. jardunaldia.
- Michelin, 16:00etan
Ostadar SKT - Martutene
Jubenil I. Maila, Igoera Fasea
9. jardunaldia.

Michelin, 17:45ean
Texas Lasartearra - Euskalduna
I. Erregionala, Kopa
7. jardunaldia.

Igandea 1
Michelin, 11:00etan
Ostadar SKT - Touring
Ohorezko Erregional Maila
24. jardunaldia.

Berio, Donostia 12:30etan
Santo Tomas Lizoea - Ostadar SKT
Jubenil I. maila, Igoera Fasea
21. jardunaldia.

Michelin, 12:45ean
Ostadar SKT - Ilinbxa Ilur
Emakumezkoen Lurralde Maila,
Kopa
7. jardunaldia.

Michelin 14:30ean
Texas Lasartearra - Usurbil
Jubenil I. Maila, Kopa
6. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 27
Michelingo kirol-gunea, 19:45ean
Bar Also - Urdaneta HK
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean
Insausti Taberna - Reformas Lagunak

Larunbata 28
Michelingo kirol-gunea, 9:15ean
Bar Buenetxea - Indaux
Michelingo kirol-gunea, 10:15ean
Viña del Mar - Izkiña Taberna
Michelingo kirol-gunea, 11:15ean
Ilargi - Trumoi

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean
Txoko Taberna - Txindoki

Galdakao, Urreta kiroldegia, 16:00etan
Lagun Onak FS GDKO - Ostadar
Antonio Aroztegia
3. Maila Nazionala,
19. jardunaldia.

Udal-kiroldegia, 18:00etan
ISU Leihokak - Beti Ona KE
Gipuzkoako Liga,
I. maila,
19. jardunaldia.

Azkoitia, Zubiaurre kiroldegia, 16:00etan
Zurt Taberna - Cecilia Fruta Denda
Kebab Lasarte Ostadar
Gipuzkoako Liga,
3. maila,
19. jardunaldia.

ATLETISMOA

Larunbata 28/Igandea 1
Donostia, Belodromoa 16:30ean
LOKEko neska-mutilek absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu dute. Igandeko saioa goizeko 9:30ean hasiko da.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Igandea 1
Oizartzungo kiroldegia, 10:00etan
LOKEko gimnastek Udaberriko Torneoko lehenengo fasea lehiatuko dute. Lehengo astean, Hernanin, Angely Gonzalezek infantil mailan lehenengo egin zuen uztaiekin eta taldekako proban, uztaiekin, infantil LOKE B taldeak 5. egin zuen. Helburua Gipuzkoako txapelketako finalera sailkatzea da.

— Agenda —

Asteburuan, Semblante Andaluz



Andaluzia eguneko ospakizunak

Andaluzia eguneko ospakizunak egingo ditu herriko Semblante Andaluz elkarteak asteburuan. Gaur, 20:00etan Luncha, bazkide eta agintarien ohorezko ardoa eta boterea zuzendaritza batzorde berriari eskualdatzeko ekitaldia egingo da. "Semblante Rociero" koruak girotuko du ekitaldia Zambraekin.

Larunbata,
17:00: Dantzari taldeen emanaldia: Gitanillos del Alba, Duende Flamenco, Azabache, Zambra.

18:00: Semblante Rociero.
18:30: Merche Montes.
19:30: Petri Fuentes flamenko kantaria eta Paco Carrion.

Igandea,
11:30: Meza Rozieroa Arantzazuko Ama Birjinaren parrokian, Semblante Rociero-ren kantekin.
14:00: Agintarien harrera, Andaluziako himnoa eta bazkaria.
19:00: Amigos del Sur taldearen kontzertua.
19:30: Dantzaldi herrikoia.
21:30: Festa amaiera.

Lasarte-Oria
Zinema
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea, 17:00etan
"Capitan Harlock" filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea, 19:30ean
"Siempre Alice" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Dantza
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Gaur, 21:00etan
Villabonako Oinarri dantza taldea

eta Hika teatroaren "Itsasoaren emazteak" dantza ikuskizunaz gozatu ahal izango da. Euskal dantza tradizionala oinarri hartuta, Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak kontatzen ditu. Sarrera 5,50 euro.

Antzerkia
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 6, 20:00etan
"Tartufo" antzezlan eskainiko du herriko Lan eta Lan antzerki taldeak. Emakumearen Nazioarteko eguna dela eta prestatutako egitarauaren baitan. Sarrera 3 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 7, 17:00etan

"Molli Malone" haur antzerkia Txalo produkzioak-en eskutik. Euskaraz. Sarrera 3,80 euro.

Erreteria
Kontzertua
SANTA MARIA MAGDALENA ELIZA
Larunbata, 20:00etan
Santa Maria Magdalena Lagunak taldeak gonbidatuta kontzertua eskainiko du herriko SuBerri akordeoi orkestrak. Taldeak emanaldi anitza osatu nahi izan du Erreteriar egiten duen lehenengo bisitan eta musika klasikoa, bossa nova eta jazz doinuak entzun ahal izango dira. Saxoan Ramon Irizar izango du lagun akordeoi orkestrak. Sarrera irekia izango da.

Andoain
Bertsolaritza
IRUNBERRI ELKATEAN
Ostirala 6, 21:00etan
Korrika kulturalaren baitan "Rebantxa bertso afaria" egingo da eta honetan Lasarte-Oria eta Andoaingo bertsolarien arteko lehia izango da. Andoaindik Ion Beloki, Ion Eskudero eta Aritz Eskudero arituko dira eta Lasarte-Oriatik Ane Labaka, Beñat Iguaran eta Asier Azpiroz. Aurreko lehia lasartearrak irabazi zuten Jalgin. Txartelak salgai daude dagoeneko Irunberri elkartearen, Ernaitza liburudendan eta AEKn (943 59 17 04). Prezioa 18 euroko da eta txartela erosteko azken eguna martxoaren 3a izango da, antolatzaileek azkar ibiltzeko eskatu dute.

— Herritarren txokoa —

Buruntz-Azpiren ehiza txikiko txapelketa martxoaren 1ean
Buruntz-Azpi elkarteak txapelketa bat antolatu du martxoaren 1ean: txakurrarekin egin beharreko ehiza txikiko txapelketa. Horri buruz gehiago jakin nahi duten pertsonak elkartera bertara hurbil daitezke informazioa jasotzera.

Korrikaren materiala salgai
Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrak euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko orduategian.

Podemos Lasarte-Oria
Martxoaren 1a arte zabalik izango da Lasarte-Oriak Ahal Du-Lasarte-Oria Puede zerrendetan izena emateko epea. Bere burua aurkeztu ahal izango du edozein herritarrek. podemos.lasarteoria@gmail.com helbidera mezua bidali dezakete interesatuek.

Bi txakur galdu dira
Pasa den igandean 2 setter-ingeles galdu ziren Lasarte-Orian, Zabaleta-Illarratzueta artean. Garratza base-riaren inguruan ere ikusi dituztela jakin dugu. Bat txuri-gorria eta bestea txuri-beltza. Ikusi dituzuela uste baduzue, deitu mesedez 620 91 21 75 telefonora (Luis).

Duela 1217 ale

1994ko otsailaren 10etik 15era inauteri giroa izan zen nagusi herriko kaleetan eta hori islatu zuen TXINTXARRI-k. Konpartsa ezberdinek desfilea egin zuten larunbatean, Euskal Inauteria izan zen igande goizean eta Sardinaren ehorzketa antolatu zuen udalak asteartean jaiari amaiera emateko.

"Aurtengoan jendearen parte hartzea asko handitu da eta zortzi konpartsa ibiliko dira herriko kaleetan".

Urte hartako Inauterietan, "Tximua kultur zuzpertzailleak bultzatuta, herriko zenbait elkarte, koadrila eta tabernari bildu dira.

Asmoa zerbait bateratua egitea izan da eta elkarteak bakeroz, indioz, Dalton anaez, kabareteraz eta antzekoez jantzi eta tabernak saloi, kartzela edo ikuilu bihurtuko dira. Lege gabeko herria izango da Lasarte-Oria egun hauetan".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Xabier Amonarriz Albaolako boluntarioa

"Ametsa litzateke San Juan baleontzian nabigatzea"


Solaskide egitasmoaz gain, Albaolan egiten dituen lan egunak euskaraz hitz egiteko balio diote

Egurra lantzen hasi zen duela urte batzuk Xabier Amonarriz herritarra zaletasun modura. Orain tornuan lan egitea da gehien gustatzen zaiona eta pieza ezberdinak egiten ditu. Egun, lagun bati esker, Albaola Itsas Ondarearen Fundazioan ari da lanean boluntario modura. Albaola Pasai San Pedron kokatua dago eta bertan XVI. mendeko San Juan baleontzia eraikitzen ari dira Donostia 2016 ekimenaren baitan. Itsasoa da Amonarrizen beste pasioa eta egitasmo honek biak uztartzen dituen bezala, bereziki pozik dago egiten ari den lanarekin. Bide batez, herritarrak bertara joatera animatzen ditu.

Maider AZURMENDI

Asteburuan bisitatutako dute Oinatz eta Xumela koruko lagunak Pasai San Pedron dagoen Albaola museoa. Bertan XVI. mendeko San Juan baleontzia eraikitzen ari dira eta bisitariak bertatik-bertara ikus dezakete ontzian nola egiten den lan.

Modu boluntarioan, astean behintzat bi egunetan, bertan aritzen da lanean Xabier Amonarriz herritarra. Itsasoa bere pasioetako bat da eta egurra afizio bilakatu zen duela zortzi urte inguru. Biak batzen dira Albaola fundazioak dituen egitasmoetan eta benetan pozik dago bertan bere aletxoak jartzeko aukera izateagatik. Ziur dago Xumela eta Oinatzeko kideen gustukoa izango dela bisita izan ere herritar guztiak animatzen ditu bertara gerturatzeko.



Noiztik lantzen duzu egurra?

Duela 8 urte ikastaro labur bat egin nuen baina beti gustatu izan zait egurra lantzea. Pixkanaka nire kabuz ikasten joan naiz, Interneten informazioa bilatzen nuen edota Youtubeko tutorialak jarraituta lan ezberdinak egin ditut. Tailla egiten hasi nintzen eta tornuarekin trebatu ostean, honekin lan egiten daramat urte bete baino gehiago.

Nolatan Albaola?

Lagun baten bitartez jakin nuen proiektu honen inguruan. Urte asko eman ditut Euskal Herritik kanpo eta ez nuen ezagutzen. Nire beste afizio bat itsasoa da eta Albaolak egurra eta itsasoa uztartzen dituen bezala, bertan parte hartzeko interesa azaldu nuen. Boluntario bezala lan talde handi bat dago eta oso pozik nago bertan lan egiteko aukerarekin.

Zer egiten duzu bertan? Baleontzian egiten duzu lan?

25 boluntario inguru gabilta Albaola elkartearen lanean. Denetarik egiten dugu izan ere, Albaolak berak urteak daramatza martxan garai bateko ontziak berreskuratzen, eraikitzen eta azken

batean, antzinatek datorkigun nabigazioaren inguruko ofizio eta lanak betirako desagertu ez daitezen lanean.

Hau dela eta, baleontzia-erentzat hainbat lan egiten ditugun arren, elkartearen bestelako lanak ere egiten ditugu. Ontzian bakarrik lanean ez dago jende asko, 12 bat izango dira eta gu bisitariak ikusten ez duten tailerrean izaten gara lan egiten, makinak dauden lekuan hain zuzen. Esaterako Albaolak aterpe bat ere badauka eta bertako zenbait altzari amaitu berri ditugu.


Esperientzia ona da zuretzat?

Zentzu askotan asko ikasten ari naiz. Egurraren inguruan arotzen lana ezagutzen ohi dugu baina lanbide ezberdinak daude edo espezialista ezberdinak egurraren munduan. Adibidez, batzuk maketetan adituak dira, ez dago baleontziaren planorik, beraz, dagoen materiala erabilia, ontziaren zein honen atal bakoitzaren maketak egiten dituzte batzuk, beste batzuk, egurra basotik ekartzen dutenean landu eta garbitzen dute, beste batzuk piezak moztu eta ontzian jartzeko moduan utzi eta muntatzen dituzte...

Lan handia duen prozesua da, ahal den neurrian, garai batean ontziak egiteko lan moldeak jarraitu nahi delako. Noski, egun eskura ditugun makina ezberdinak erabiltzen dituzte arotzek nolabait lana azkartzeko edo...

Jende asko ezagutu eta asko ikasten ari naiz egurraren inguruan esperientzia trukea polita da. Horretaz gain, euskaldun asko dago eta euskara ere ikasten ari naiz.

Esan behar da atzeritarrak ere badaudela, proiektuak herrialde ezberdinetako egur



San Juan baleontzia ikusgai dago.

ALBAOLA.COM/MENDI URRUZONO

adituak erakarri ditu, batzuk langile modura egonaldiak egiten dituzte eta beste batzuk berriz, boluntarioak dira.

Solaskide egitasmoan parte hartzen duzu...

Bai esan bezala, denbora asko egin dut herritik kanpo eta euskara nahikoa galduta nuen. Solaskiden hasteak asko lagundu dit euskaraz hitz egitera pausua emateko. Orain solaskideko hitzorduak eta Albaolako tailerrean egiten ditudan orduak esker nire euskara asko hobetzen ari naiz eta alde horregatik oso pozik nago.

Ontzigitzari buruz zerbait ezagutzen zenuen?

Itsasoa asko gustatzen zait, urpekaritza egiten dut eta nabigatu izan dut.

Egia esan, amets bat betetzea litzateke baleontzia amaitzerakoan, langile eta boluntario guztiei aukera ematea honetan nabigatzeko.

Egun, itsasontziak zuntzezkoak dira eta azpimarratu nahi nuke garai bateko ontzigitzaren jakintza galdu ez dadin Albaolan egiten ari

diren lana. Adibidez, San Juan ontzia egiteko, basora joaten dira arotzak molde an-tzeko batzuekin, zuhaitzak aukeratu eta moztu egiten dira. Ondoren tailerrera ekartzen dira garbitu eta lantzeko. Haritza eta pagoa erabiltzen ari gara.

Albaolan museoa jarri dute bisitariak ontzigitzaren historia ezagutu dezaten baina tailerrak ere bisitatzen dira...

Bai, hiru tailer daude eta horietako bitatik pasatzen dira bisitariak. Ontzian lanean ari diren arotzek egiten dituzte gida lanak batzuetan. Euren ematen dituzte egiten ari direnaren azalpenak.

Museoak daukan parte ikusgarriena da tailerra.

Bisita gomendatzen al diezu herritarrei?

Noski! Aukera bikaina da. XVI. mendeko baleontzi baten eraikuntza bertatik bertara ikustea zoragarria da. Ontzigitzaren historia ezagutzeko aukera eskaintzen du eta ikastaro ezberdinak antolatzen dira.

Susana
Peluquera-Estilista
Zubieta enparantza z/g
(Carrefourreko atzekaldean)
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 373383

Gu bisitatzera
anima zaitez
eta **PERSONALKI**
arduratuko gara

EMAZTEGA lantzat **ESKAINITZA BEREZIA**
eskaintzen dugu, 2015 honetan:

BONO honen barnean sartzen dira:

2 ORRAZKERA
2 MAKILAJEAK
tratamenduak, produktu naturalekin

...
zerbitzu gehiago